

FUNTZEZKO JARDUERAK

Gure proiektuaren jarduera nagusia webgune erakargarri eta funtzional baten garapena da. Plataforma digital hau, erabiltzaileen esperientzia positiboa bermatuz, erabilgarritasunean eta estetikan oinarrituta diseinatuko da. Gure helburua ez da soilik produktu eta zerbitzuei buruzko informazioa eskaintzea, baizik eta bisitariekin konexio emozionala ezartzea, marka identitatea indartuz.

Horretarako, bisualki erakargarria eta nabigatzeko erraza den edukia sortzea izango da gure lehentasuna. Diseinu intuitiboa eta atsegina ezarriko dugu, erabiltzaileek bilatzen ari diren informazioa azkar eta erraz aurkitzeko aukera izan dezaten. Era berean, elementu interaktiboak eta ekintza estrategikoak sartuko ditugu, erabiltzaileen parte-hartzea eta markaren atxikimendua sustatuz.

Webgunearen garapen teknikoa kudeatzea funtsezko elementu izango da gure ikuspegian. Horretarako, informatikari esperientziadun bat kontratatuko dugu, webguneak errendimendu, segurtasun eta teknologia estandarrak betetzen dituela ziurtatzeko. Profesional honek webgunearen programazio eta diseinu teknikoaren arduraduna izango da, erabiltzaileek plataforma eraginkorra eta seguru batean esperientzia egonkorra izan dezaten. Webgune honen bidez, gure helburua bezero potentzial gehiago erakartzea eta bezero oinarria zabaltzea da. Aplikazioaren ikusgarritasuna handituz, gure produktuak eta zerbitzuak jendeari modu eraginkorrean helarazi nahi ditugu.



Gainera, webgunearekin batera, harreman estrategikoak garatzea funtsezko jarduera izango da. Beste enpresekin lankidetzaz, gure proiektua aurrera eramateko ezinbestekoak izango dira. Horrek aukera emango digu gure ideiak merkatuan kokatzeko eta gure helburuak lortzeko.

Sare sozialetan ere presentzia aktibo izango dugu, gure produktuen eta zerbitzuen inguruko informazioa zabaltzeko. Gure fokua irudietan oinarritutako sare sozialetan egon arren, bideoak eta marketin kanpainak partekatzeko erabiliko ditugu, gure aplikazioaren ezagutzaren zabalkundea lortuz. Google Ads eta influencer marketinarekin ere lan egingo dugu, plataforma eta aplikazioa publiko zabalago batengana iristeko.